



*Prensa oharra*

*Aurre horretan egindako hitzarmenaren harira*

## **EROSKI-K WWF-RI LAGUNDUKO DIO BASOAK ZAINTZEN ETA EKOSISTEMAK BERRESKURATZEN**

- EROSKI k WWFri emango dio bihartik azarora elkartasun poltsarekin bilduko duen guztia
- Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde EROSKI k hartu dituen konpromisoen harira dator hitzarmen hau; asmoa da bizi kalitatea hobetzea eta gizarte iraunkorrako baten alde egitea

Elorrio, 2018ko abuztuaren 8a.- [EROSKI](#) eta [WWF](#) elkarrekin ariko dira basoak zaintzeko eta ekosistema hondatuak berreskuratzeko elkartasun kanpaina batean. Alde horretatik, EROSKI k naturaren aldeko erakundeari emango dio elkartasun poltsarekin bilduko duena. Aurre horretan bi entitateek egindako hitzarmenaren harira dator kanpaina hau, eta bihar hasi eta azarora arte iraungo du.

EROSKI k sei urte daramatza, bere dendetan euro batean saltzen dituen elkartasun poltsetatik bildutako guztia ematen. Telazko poltsa berrerabilgarri bat da, erraz tolesten dena, sakelari eramateko modukoa edo esku zorroan edo autoan edukitzeko egokia. 2013an atera zenetik, kooperatibak milioi bat pasa elkartasun poltsa saldu ditu, eta etekinak hainbat erakunderi eman dizkio, hala nola Gurutze Gorriari, Unicefi, Oxfam Intermoni eta Save the Childreni. *"Kontsumitzaileek oso harrera ona egin diote elkartasun poltsari, eta ziur gaude gure bezeroak berriz inplikatu direla ingurumenaren aldeko proiektu honetan"*, esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Diru hori WWFrentzat izango da, basoak zaintzen baitihardu honako xede hauekin: basoen eginkizuna berreskuratzea —hau da, baliabideak, ura eta kalitatezko airea ematea, uholdeetatik babestea eta Lurraren klima erregulatzea—; baso espezie eta adin askotariko baso autoktonoak sortzea, aniztasunaren eta habitat askotarikoen alde eginez; basoen erabilera ugartzea, landa eremuetako jarduera ekonomikoaren oinarria izan dadin; eta paisaia aniztuna eta errentagarria eratzea etorkizuneko kolpeei eusteko.

*"Gizarte bidezkoago, solidarioago eta iraunkorrako baten alde egitea da, kooperatiba garen aldetik, geurez dagokigun eginkizunetako bat. Kanpaina hau*



*WWFrekin dugun konpromiso berrituaren parte da, eta gure gogo da landa ingurunea zaintzen laguntzea", esan du Alejandro Martinez Berriochoak.*

*"Gure basoen egoera larria da: Espainian har lezakeen azaleraren %29 baino ez du hartzen, eta gelditzen diren basoen gehiena ez dago oso egoera onean. Europar Batasunak helburu bat ezarri du, hau da, 2020rako hondatutako ekosistemen %15 berreskuratzea. WWFn, saiatzen gara natura bere gisa berritu dadin laguntzen, era integralean, eta EROSKIk emandako laguntzari esker bide horretan goaz", esan du WWFko idazkari nagusiak, Juan Carlos del Olmok.*

### **Ingurumena babestea**

EROSKIk konpromiso sendoa du ingurumena errespetatzeko, eta ekimen askotarikoak lantzen ditu bere jarduerak inguru hurbilean duen eragina murrizteko. Baliabideak modu iraunkorrean erabiltzea, ingurumen arrastoa txikitzea, ekonomia zirkularra sustatzea, klima aldaketari aurrea hartzea, bioaniztasuna babestea... irizpide horiek sailhetsezinak dira EROSKIrentzat, eta halaxe zerrendatu ditu, gainera, [Osasun eta Iraunkortasun arloko Konpromisoetan](#), zeinak orain dela gutxi berritu dituen eta jendaurrean aurkeztu ere bai, ekitaldi honetako lehen hiruhilekoan hain zuzen. WWFrekin gauzatuko duen ekimena ere, hain zuzen, ingurumena babesteko konpromiso horietan sartzen da.

### **EROSKI**

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.651 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai. Sortu zenetik bertatik, gizarte ekintzako hainbat ekimen gauzatzen du, honako helburu hauekin batez ere: bizimodu osasungarriarekin zerikusia duten ohiturak lantzea, kontsumitzailea trebatzea, ingurumena babestea eta elkartasuna sustatzea.

### **WWF**

WWF natura babesteko mundu erakunde independenterik handienetako eta eraginkorrenetako bat da. Haren helburua da Lurreko ingurumen hondamendia



geldiaraztea eta gizakia naturarekin harmonian biziko den etorkizun bat eraikitzea, aniztasun biologikoari eutsita, baliabide berriztagarri naturalen erabilera iraunkorra ziurtatuta eta kutsadura eta neurrigabeko kontsumoa gutxitzen lagunduta.

*Harremanetarako:*

<p><b>EROSKI</b> Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Xurdana Fernández Herrán, Tel: 946 211 214 <a href="mailto:comunicacion@eroski.es">comunicacion@eroski.es</a></p> <p>Prentsa bulegoa - Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Edurne Izquierdo Tel.: 944 158 642</p>	<p><b>WWF</b> Komunikazio Saila Tel.: 91 354 05 78</p>
--	--